

Bai, aritz-kima luze ene esku igarrak...
 Ez bai-dira egundo ezertara saia,
 ezta iñoiz be oratu ez atxur, ez laia.
 Ta gaur dakustaz miñez, erreka idor, utsak...

Noizka giz-barne griña garatu orduan,
 ames urdin oingreak eio ditut zoro;
 baita baratze zear larrosa ta mao,
 sarri laztandu bere, irrika mosuan.

Eta zer? Mintza naiten orain lots gorrian:
 ez dot lur gaiñez bein be sokillik irauli,
 ez muño-egalean sasirik ebagi,
 ez zugatzik birlandu ibai-saietsian.

Ez dot iñoiz azatzik soloan atera,
 ezta oraindikarren azirik ezkotu,
 artorik ez garirik igitaiz ikutu,
 Jainkoaren esana jaurtiz ezkerrera.

Ez dakit nik, baiña bai laiño ta mendiak...
 Geroztik naz gau t'egun zerurantz azartu,
 urdiñaren ixilla nairik estalgetu:
 mendeko nau, alan be, ezin-atz lodiak.

Jauna, Jauna/erruki zakidaz or goitik,
 ez nagizu betikoz albora egotzi.
 Zuk, arren, nagizu indar-orioz igurtzi,
 ta nire atzak dozuz arnariz jantzirik.

Oi, nere ereskin ai-zale, ixil-ekkon aratza:
 ots samíñez, otoi, birlora nire ames-baratza.

Bai, ta liliak sortuko ezker-eskoi bidean,
 igarra barriz piztuko biotz-barren jausian.

BERANDUEGI?

Gure maitasuna, biotzaren kimu,
 lapur aiñakoa yata begitantzen;
 ez bat eta ez bi, uste ezik yatorku,
 eriotza bera lez dala gertatzen.

Maite dozun arek —ez zuk opa edu—
 baietza leialki ez dautzu esaten;
 ur dozun biotza, naiz luze bizitu,
 ezta, ez, bertatik maitean igarten.

Ta zure ereguak aintzat ez arturik,
 epe txit aundia lauskitu ondoren,
 dituzun samiñak lepo-gaiñ botarik,

barriz bideari bakarrik eltzean,
 atarian leraz zaitu besarkatzen,
 biotza daularik irakin betean.

OLERKARIA

Ez daki norantza; doiñuz josia,
 korkor doa gure olerkaria.
 Goi-argia dau ixuritzen,
 biotzak orruz dardaratzen.

Doala, urrats-me, marmux, betillun,
 gau-zatiz jantzia joaku zurrún;
 izarren ameslari dabil,
 joan eta joan ez gurbil.

Zer al dok esan nai, koplari kutun,
 kalea ipiñirik doiñutan astun?
 Barruan zer dauskuk nai itsatsi,
 kanta ta kanta ezin-etsi?